

Leire Marin Mugica

B maila • 2 aipamena

Kaixo ni Leire Marin naiz eta 15 urte ditut, 2005eko irailaren 19an jaioa. Beasaingoa naiz. Nire ikasketak Murumendi eskolan hasi nituen, eta orain Txindoki Institutuan 4. DBH ikasten ari naiz.

Nire zaletasunak oso ohikoak diren kirola egitea eta lagunekin egotea dira. Txikitatik irakurtzea gustatu zait. Gustukoena misteriozko edo beldurrezko liburuak irakurtzea dut, eta hauek inspiratu ninduten ipuin hau idazteko. Besterik gabe, irakurtzen uzten zaituztet.



ARROSA HILGARRIA

Zerua negarrez egoten da beti, hodeien begiak malkoz beteak Norbegiako Reine herrian. Astelehena, otsailaren lehena edo ekainaren bigarrena, ez du axola, urteko egun guztiak horrelakoak direlako, tristeak, barrerik gabekoak. Umeak etxean egoten dira, kalearen beldur, bere gurasoen zain, itsasotik ea noiz etorriko diren aldiro pentsatzen.

Baina gaur egun arraroa da, bai, oso arraroa, zeruan ez dago hodeien arrastorik. Egun distiratsua da. Umeak kalean ari dirajolasten eta herriko tren geltokira tren handi bat iritsi da. Barruan pertsona bat baino ez dago. Brown idazle britainiar famatua, lehen Erresuma batuan bizi zena. Maletak eta bere Olivetti idatz makina hartu eta geltoki txikian jaitsi da.

I

Bere etxe berrira iritsi da. Armairuan bere arropa sartu gabe, bere Olivetti maitea hartu eta lehiotik fiordoak ikusten diren gelan sartu da.

Idazten bi, hiru eta lau ordu pasa ditu... Baina ezer ez, ez zaio ezer bururatzen. Bere etxe berrian inspirazio falta du. Azkenean, gaueko ordu bietan bere egunerokoa idaztea erabaki du.

“Sentimenduak ez ditut argi... Ez dakit zer sentitzen dudan, beldurra edo poztasuna. Nire baitetan tximeletak sentitzen ditut. Oso pozik nago nire herri eta etxe berrian, fiordoan ondoan. Baina nire ideiak joan egin dira poztasunaren etorrerarekin, Liverpoolen beti ilun zegoen, euria egiten zuen. Bertan bai, inspirazioa nuen... Bihar itsasora gerturatuko naiz, ea zerbait bururatzen zaidan...”

Gaur ere egun argitsua da. Arrantzaleak beraien itsasontzietan daude, azken arrainketan zenbat arrain arrantzatu duten zenbatzen. Brown kaiaren bukaerara iristean, bere idatz makina hartu eta idazten hasi da. Baina ezer ez, gaur ere ez zaio ezer bururatzen. Bat batean

PROSA

kaia inguruan zegoen arrantzale zaharkitu bat, bere iraganeko "lanpostua" miresten zegoena, idazlearengana hurbildu da.

-Egun on, gizona! Berria zara hemen?

-Bai, nagusi.

-Ez zara itsasontzi handi horietako baten eskifaia izango!?

-Ez, lasai, jauna. Ni Liverpoolen hazi eta hezitako idazle bat naiz. Atzo iritsi nintzen paradisu honetara. Nik uste nuen Europako izkin honetan nire ideiak berretsi eta hobetuko zirela baina, ezta gutxiago ere. Iritsi nintzenetik ezin izan dut ezer ere idatzi.

-Zure ipuina idazteko ideia bat behar duzu?

-Beno, nire nobela idazteko argudioa, bai.

-Bai, nik esaten nuena. Zergatik ez duzu idazten duela ehun bat urte hemen gertatutako erailketaz?

Bat batean zerua iluntzen hasi da, arrantzalea istorioa kontatzen hasi orduko.

"Duela ehun bat urte, Reine, gure herria, ez zen gaur egun bezalakoa. Jendea pozik bizi zen, kalera ateratzen zen, erosketak egitera, umeekin jolastera edota banku batean eserita paisaiari begi ematera. Baina egun batean dena aldatu zen. 1868ko maiatzaren 12an, izokin garaia bete bete zegoenean, biztanleriak beti gogoratuko duen gertaera bat suertatu zen. Gertakariak Mørk arrantzalea du protagonista.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, arrantzale hau oso pertsona ona zela eta herri guztian zela maitatua. Baina arau guztiak betetzeko salbuespen bat egon behar du, eta honek ere bazuen. Mørkek etsai bat zuen, Sulland, hogeita hamahiru bat urteko arrantzalea. Sullandek inbidia handia zuen Mørkengan, mundu guztiak uste zuelako bera baino arrantzale hobea zela. Gainera, gazteak zirenean, berak maitatzen zuen emakumea Mørkekin ezkondu zen. Hau guztia batuta, Mørkenganako gorrotoa eta mespretxua oso handia zen.

Lehen esan dugun bezala, hilketak 1868ko maiatzaren 12an gertatu zen, goizeko zortziak aldera. Egunero bezala, Mørk Trolltunga itsaslabarrean zehar paseo bat ematen ari zen. Dena behelainoz beteta zegoen, ez zen ezer ikusten. Itsaslabarraren puntan zegoen, hegan balego bezala ikusten zuen bere burua. Halako batean, bere oinen alboan zerbait distiratsua ikusi zuen, makurtu eta hartu egin zuen. Urrezko intsignia bat zen, bere barrualdean arrosa bat zuena. Intsignia miresten ari zenean, esku batzuk gertu ziren eta itsaslabarretik behera bota zuten Mørk. Denok uste dugu Sulland izan zela, baina ez du pasa minutu bat ere kartzelan. Bere gorputza ez zen inoiz aurkitu, baina bai bere eskutitz bat "beti egia aurkitu" esaten zuena."

Hau entzutean Brown pentsakor geratu da.

-Gertakari honen egia bilatzen saiatuko naiz, eta dena nire Olivettian idatziko dut, istorio baten modura.

Istoriaa kontatzen bukatu duenean hodeiak desagertu eta eguzkia nagusitu da.

II

Brownek ez du asko itxaron idazten hasteko. Egun bat baino ez da pasa arrantzale zaharrak historia kontatu zionetik.

Fiordoetara begira dagoen egongelaraino joan da, bertan baitu bere idatz makina, Baina bertan zerbait arraroa dago, usain arraroa, arrosa ustelen usaia. Idazmahaira hurbildu da eta bere idatz makinan zerbait arraroa ikusi du. Teklen gainean tinta gorria dago eta lehenengo orrialdean arrosa bat. Brown beldurtzen hasi da, baina beldur horrek ez du gelditu bere idazteko gogoia. Tinta gorria garbitu, lehenengo orria kendu eta idazten hasi da. Hogeita hamar orri idatzi dituenean, bere egongelatik ikusten dituen fiordoetara joatea erabaki du.

Idazten jarraitu du arazorik gabe. Ordu bete pasa da eta zeru urdina lainoz betetzen hasi da. Bat batean, itsasoa gorritz margotzen hasi da eta ur barnetik gorpu bat agertu da. "Zein ote da?" Brown harrituta gorpuairengana hurbildu da. Biluzik dago eta bere bularrean arrosa bat du. Mørk arrantzalea zen! Bere eskuan botila bat du eta bere barnean mezu bat. Hau esaten du mezuak "Nire hiltzailea uste duzuna baino gertuago dago". Brown izututa etxera joan da.

Brownnek oso gau txarra pasa du, beldurtuta, amets-txarrekin; gainera, kanpoaldean izugarritzko zaparrada eta trumoi erasoak egon dira. Bere egongelak arrosa usain batean murgilduta pasa du gau osoa. Beldurtuta edo ez, Brownek istorioaren erdia idatzi du jadanik. Gaur Trolltunga itsaslabarrera joatea erabaki du, bertako deskribapena hobeto egiteko.

Itsaslabarrera iritsi da. Ez da ezer ikusten, dena behe-lainoz beteta dago eta zerua ilun. Mørk arrantzalea hil zen lekua da. Bat batean, bere oinen ondoan zerbait distiratsu ikusten du. Makurtu egin da... Mørkek aurkitu zuen intsignia da. Horrekin batera arros usain ikaragarria etorri zaio. Buelta eman eta arrantzale zaharkitua ikusi du.

-Egun on, gizona! Zer ari zara hemen?

-Hori nik galdetu behar dut, susto galanta eman didazu eta. Ni Mørkengatik justizia egitera etorri naiz.

-Banekien nik, bai... - Xuxurlatu du arrantzaleak.

-Bazenekien zer?

-Azkarregia zinela. Eta ez zela gomendagarria Mørken istorioa kontatzea, egia aurkitu egingo zenuelako. Baina ez, kontatu egin nizun eta horrela bukatu dugu.

-Zer esan nahi duzu horrekin? -Nik hil nuela Mørk.

-Zu Sulland zara?

-Bai. Sulland naiz.

-Baina eraiketa hori duela ehun bat urte gertatu zen, eta Sullandek hogeita hamahiru urte zituen. Horrek ez du zentzurik.

-Bai, izan dezake.

Sullandek aurpegiko azala hartu eta kendu egin du. Bere aurpegia gezurretakoa da! Bere aurpegia deabru batena da! Sulland deabrua bera da! Gainera, deabru hilezkorra !

PROSA

-Orain zuk egia ezagutzen duzunez, hil egin behar zaitut.

Deabruak idazlea bultza egin du, eta bere bizitza momentuan bertan bukatu da.

III

Berrogei urte pasa dira, eta inork ez daki zer pasatu zen Brown idazlearekin, mundu guztiak bere buruaz beste egin zuela uste du. Baina jendea oraindik beldurrez bizi da eta zerua beti ilun dago Mørken eta Brownen heriotzari buruzko egia ez da argira atera. Eta Sulland... Deabrua herriko arrantzaleen artean bizi da.